GORLIZKO HERRITARREI ZUZENDUTAKO EUSKARA ESKOLAREN ZERBITZUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA (MERKATARI ETA GURASOEI ZUZENDUTA):

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren xedea izango da Gorlizko herritarrei zuzendutako euskara eskolak eskaintzea merkatariei eta gurasoei 2020-2021 eta 2021-2020 ikasturteetan. Hona hemen, zehazki, zerbitzuaren nondik norakoak:

Euskaraz mintzatzeko eta euskara ulertzeko/ ikasteko interesa duten Gorlizko herritarrei zuzendutako eskolak dira, hain zuzen ere. Euskaraz aritzeko zailtasunak murrizte aldera eta euskaraz idazteko eta mintzatzeko gaitasuna indartze aldera.

2. *EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK*

2020ko eta 2021eko urrian/azaroan hasi eta 2021eko eta 2022ko maiatzean amaituko dira. Astean 2 egun (2 orduko saioak).

3. *FUNTZIONAMENDUA*

Plaza-kopurua mugatua izango da: Gutxienez 7 ikasle eta gehienez 25.

Enpresaren egitekoa izango da izen-emateak kudeatzea eta zerrendak osatzea, eta ikastaroen zabalkundea egitea.

Eskatzaileek ondorengo alderdiak garatuko dituen lan-programa aurkeztu beharko dute (zerbitzuaren helburuak, metodologia, programazioa, giza baliabideak, baliabide materialak, Udalarekiko koordinazioa eta zerbitzuaren ebaluazioa):

4. METODOLOGIA

Metodologia dinamiko eta parte hartzailea izango da. Hartzaileen adin tartera egokitzen diren ekintza erakargarriak bilatuko dira, euskara modu gozagarrian ikasteko helburuarekin.

Talde lana sustatuko da.

Konfiantza giroan eta presiorik gabe, euskara eta euskal mundua ezagutzea izango da helburua.

Hau da, presiorik gabe euskaraz parte hartzera animatzea.

5. PROGRAMAZIOA

Ikasturte osorako programazioaren diseinua enpresa esleipendunaren betebeharra izango da. Hala ere, programazioa garatzerako orduan, enpresa esleipendunaren eta euskara zerbitzuaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da. Horretarako, hiru koordinazio-batzar egongo dira ikasturtean zehar: hasieran (programazioa zehazteko), ikasturtearen erdian (egon daitezkeen gabeziak zein hutsuneak zuzentzeko eta ikasleen garapena baloratzeko) eta amaieran (balorazio-batzarra).

Programazioan zehaztutako edukiak, betiere, modu ludiko/didaktiko batean landuko dira: hiztegia lantzeko dinamikak, komunikazioa eta ahozkotasuna lantzeko ariketak, zenbait gai lantzeko jolasak (esamoldeak, zenbakiak, egiturak, aditzak…), euskaraz gozatzeko zenbait ekintza (jolasak, filmak, eskulanak, teknologia berriak…), euskal kultura lantzeko ginkanak, kulturartekotasuna (jolasak, errezetak, argazkiak …), antzerkia, txangotxoak, euskal jai eta ohiturak, filmak, eskulanak, jolasak eta abestiak, jolasak hizkuntzarekin eta abar.

6. GIZA BALIABIDEAK

Baloratuko da lan-taldea gizon eta emakumeez osatuta egotea, ikasleek emakume eta gizonen arteko identifikazio positiboan oinarritutako harremanak era ditzaten.

Lan-taldearen lan-hizkuntza euskara izango da, bai ekintzak koordinatu eta programatzerako orduan eta bai ikasleekiko harremanetan.

Lan-taldearen profila ondorengoa izango da:

- Lizentziaduna izatea
- EGA titulua edo baliokidea.
- C2 titulua.
- Eskarmentua irakaskuntzan.

7 BALIABIDE MATERIALAK

Baliabide materialei dagokienez enpresaren ardura izango da materiala prestatzea.

Enpresa esleipendunak eman beharko dio hezitzaile/dinamizatzaile bakoitzari beharrezko material didaktikoa. Horrez gain, programazioa garatzeko beharrezkoa den materiala eduki beharko du.

8 UDALAREKIKO KOORDINAZIOA

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikaria izango da Udalaren, eta enpresa esleipendunaren arteko koordinazioaz arduratuko dena. Koordinazio honek bermatu beharko du finkatutako helburuak betetzea.

9 ZERBITZUAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioari dagokionez, enpresa esleipendunak ondorengo txostenak aurkeztu beharko dizkio Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikariari:

- Hiru hilez behingo ebaluazio-txostena. Honetan jasoko dira asistentzia-datuak, ekintzen ebaluazioa eta hobekuntza-proposamenak.
- Ikasturte amaierako oroitidazkia.

Udalak ikuskatu ahal izango ditu zerbitzuari lotutako ekintzak. Horrez gain, egiaztatu ahal izango du enpresa esleipendunak betetzen dituela Baldintza-agiri hauetan ezarritako baldintza tekniko guztiak.

10 KONTRATUAREN-ZENBATEKOA

Kontratuaren prezioa, gehienez, 14.680,20 eurokoa izango da (BEZ barne). Kopuru hau beherantz hobetu ahal izango du enpresa eskatzaileak. Prezio horren barnean kontzeptu guztiak daude: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, enpresa-etekina, gastu orokorrak, etab.